

Suna Altun. Kurdueraren aldeko ekintzailea



Garabidek Huhezin antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroan parte hartzen ari da, bigarrenenez, Suna Altun hizkuntzalari kurdua (Adıyaman, 1985). Duela bost urte hemendik eramandako ikaspenak gauzatzeko aukera handirik ez du izan, izan ere, kurduera biziberritzeko 2013 eta 2015 bitartean abiatutako ekimen guztiak zapuztu ditu Turkiako gobernuak azken hiru urteotan.

“Francoren garaian euskara zegoen egoeran dago kurduera Turkian”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: INIGO AZKONA

Lehen elebakarra

“Amona duela zazpi urte hil zen, bera zen familiako azken elebakarra, ez zuen turkiera ikasi nahi izan eta beti kurdueraz mintzatzeko esaten zigun. Duela lau urte, berriz, nire lehendabiziko iloba jaio zen, familiako lehenengo turkiera hiztun elebakarra. Nebak ondo daki kurdueraz, amonarekin hazi zen, eta nortasun kurdua aldarrikatzen du, baina ez dio alabari transmititu. Orintsu, berriz, ahizpa nagusiak semea izan du eta kurdueraz baizik ez dio hitz egiten. Lehengusuen artean ez dute elkar ulertuko”.

Kurdueraren alde nola hasi zinen?

Istanbulen, unibertsitateko bigarren urtean nengoela, Europar Batasunean sartu nahian zebilen Turkia eta erreforma batzuk onartu behar izan zituen, besteak beste, kurdueraren irakaskuntza legeztatzea. Istanbulen Institutu Kurdua eskolak ematen hasi zen eta ize-na eman nuen bertan. Alfabetatu nahi nuen, irakurtzen eta idazten ikasi. Ondoren, irakasle izateko formakuntza ere hasi ziren ematen, baina urte eta erdi garrenera akademia itxiarazi zuten.

Ama hizkuntza kurduera duzu?

Bai, baina ez dut oroitzen zein hizkuntza ikasi nuen lehenik, turkiera ala kurduera. Sei neba-arreba gara eta neba-arreba nagusiek eskolan ikasi zuten turkiera. Ama gogoz ahalegindu zen eskolara hasi aurretik turkiera ere ikas zezaten. Amonarekin bizi izan ginen, hark ez zekien turkieraz. Aitarekin beti turkieraz ari nintzen, irakaslea zenez harreman formalagoa zelako. Hala ere, gaur egun askoz gehiago mintzo gara kurdueraz gure familian.

Asko egiten da zuenean kurdueraz?

Adıyaman oso asimilatuta dago, horregatik askok ez dute hiri kurdutzat hartzen. Familia barruko transmisioa asko jaitsi da, adineko jende asko hiztunak dira, baina haurrekin mintzatzearen aurkakoak dira. Ahizpa haurrekin kurdueraz berbetan ikusten dutelarik, ea “zergatik egiten dien hori” aurpegiratzten diote.

Ama hizkuntzarekin lotzen da kurdueraren transmisioa. Genero ikuspegitik nola ikusten duzu?

Korapilatsua da gaia. Badago ikuspegi bat hizkuntzaren transmisioaren rola eta ardura emakumeei ematen diena. Aitzitik, emakumea bizitzaren arlo guztietan dagoenean ardura hori banatu egiten da. Kurdistanen emakumea izan ohi da transmititzailerik, baina genero rol banaketaren ondorioz. Rol garrantzitsua du emakumeak, baina hizkuntzaren galeraren ardura ezin da bakarrik emakumeengan ezarri. Gure kasuan bitxia da hizkuntzaren



galera prozesuak nola eragin dien emakumeei. Adibidez, ikerketa baten arabera, eskolatutako emakume kurdu gehienak egun turkiera hitzun elebakarrak dira; eskolara joan ez zirenak, berriz, egun elebakarrak dira kurdueraz.

Eskolatzek emakumeen aitzinatzea baina kurdueraren galera ekarri du beraz.

Bai, eta hori gizartean emakumeak duen rolari loturik dago. Kurduera zapaltzen du turkierak, baina emakumea ere bai, turkiar zein kurdua. Emakume askorentzat zapalkuntza horretatik askabide bakarra ikasketak egitea da, burujabetza ekonomikoa lortzeko, beregain izateko. Horrek turkierara pasatzea dakar derrigorrez. Kontua ez da kurduera presio hizkuntza denik, baina askabide horretan kurduera galtzen da, ikasketak kurdueraz ez direlako.

Alevia zara. Zer ezaugarri ditu zure komunitateak?

Erlijio edo sinesmen batzuen inguruko gutxiengoa gara Turkian. Badira

"Familia barruko transmisioa asko jaitsi da, adineko jende asko hitzunak dira, baina haurrekin mintzatzearen aurkakoak dira".

alevi kurduak eta alevi turkoak ere. Batzuen arabera musulmanak gara, alevismoak islamaren ezaugarri batzuk dituelako, baina beste batzuentzat ez. Nik ere ez dut uste musulmanak garenik, ez baitugu meskitarik, gure *cem*-etan gizon eta emakumeok elkarrekin egiten dugu otoitz, dantzan eta kantuan, ez dugu egunero bost aldiz otoitz egiten, ez dugu ramadan egiten, emakumeok ez dugu gure burua erlijioagatik estaltzen, alkohola ez dugu debekaturik...

Errepresio handia pairatu duzue aleviok?

Kurduak onartzen ez dituen bezala, gobernuak ez ditu aleviak onartzen. Eskoletan erlijio islamikoa derrigorrezkoa da, eta guk aspaldiko borroka dugu gure haurrak horretara behartu ez ditzaten. Kristauak eta juduak onartuak daude erlijio moduan, eta salbuetsita daude, baina gu ez.

Zuen egoerarekin antzekotasunik aurkitu duzu Euskal Herrian?

Antzekotasun asko aurkitu ditut gure egoeraren eta euskaldunek hemen bizi izandakoaren artean. Hemen, Francoren garaian euskara zegoen egoeran dago kurduera Turkian, baina hemen diktadurak 40 urte iraun zuen eta guk 100 urteko debekua daukagu. Testuinguru ezberdinak dira, noski, ilegaltasunarena da gure arazo nagusia orain.

Izan ere, zu duela bost urte lehenengoz etorri zinenetik egoerak okerrera egin du.

Erreforma batzuk onartu zituen gobernuak 2013-2015 bitartean, bake prozesuaren garaian. Udalek haurtzaindegiak sortu zituzten, Diyarbakirren lehen hezkuntza eskola sortu zen, antzerki taldeak, emakumeentzako zentroak... Hizkuntzaren inguruko ekintza ugari sortu ziren. 2016an hori guztia moztu zuten. Estatuak udalak interbenitu zituen, alkate guztiak kargugabetu eta hainbat kartzelatu. Hizkuntzari dago-kionez, *ikastola* itxi zuten, haurtzaindegiak turkiera hutsera pasatu, hizkuntzaren aldeko elkarte guztiak itxi dituzte. ■